

## POLITIKA FISKALA (ZERGA POLITIKA)

### 1. ZERTARAKO DEN

Aurrekontu publikoen erabilera ekonomiaren norabidea bideratzeko

### 2. NOLA GAUZATZEN DEN

Gastu Publikoaren eta Zergen bidez

### 3. HIZTEGIA

**Defizit publikoa:** sektore publikoaren gastuak handiagoak direnean diru-sarrerak baino.

Zergak-gastuak

**Superabit publikoa:** sektore publikoaren diru-sarrerak handiagoak direnean gastuak baino

**Aurrekontu orekatuak:** diru-sarrerak eta gastuak berdinak direnean

### 4. POLITIKA FISKALAREN GAUZAPENA

Zergak eta/edo Gastuak aldatzea (handitzea ala murriztea) ekonomiaren Eskari Agregatuan eragina izateko.

Politika hedakorra: eskari agregatua handitu (defizita handitu, gastuak handitu edo zergak gutxitu)

Politika murrizkorra: eskari agregatua txikitu (gastuak jaitsi edo zergak igo)

**Ariketa: Gobernu baten Politika Fiskala gauzatzeko**


**Zure herrian langabezia handitzen ari da eta neurriak hartu behar dituzu**

**Tresna: gastu publikoa**

Langabeziari aurre egiteko politika hedakorra: eskari agregatua handitu (defizita handitu, gastuak handitu edo zergak gutxitu)

Gastua handitu → Eskari agregatua handitu → Ekoizpena handitu → BPG handitu → kontsumoa handitu → eskaria handitu → produkzioa handitu...

### Eskari agregatuaren igotzea




Langabeziari aurre egiteko, politika hedakorrak aplikatuz gero:

- a) Arrakastatsuak izanez gero inflazioa areagotzen da
- b) Gerta daiteke atzerriak eskariaren gehikuntza bereganatzea: orduan eskaria ez da mugitzen


Inflazioa kontrolatzeko politika murrizkorrak aplikatuz gero, ekonomian langabezi gehiago sortzen da eta krisia areagotu.

#### Hedakorra



Langabezia konpondu eta inflazioa sortu

#### Murrizkorra



Inflazioa konpondu eta langabezia sortu

## **POLITIKA FISKALA**

### **Zerga-politika**

Zergen erabilerari eta herri-gastuari dagokiena.

#### 1. Herri-gastua:

Estatuaren erosketak. Horiek ondasun- eta zerbitzu-gastuak dira (errepideen eraikuntza, funtzionarioen soldatak eta abar). Estatuaren transferentziak, zaharren eta langabetuen errentak.

#### 2. Zergak:

Zergek pertsonen errentak murrizten dituzte. Etxeko ekonomiek gastatzeko diru gutxiago dutenez, zergek ondasun eta zerbitzuetan gastatzen den kopurua murrizten dute. Horrek, aldi berean, ondasun eta zerbitzuen eskaria murrizten du, eta azkenean, benetako BPG ere murrizten da.

Orobat, zergek ondasunen eta ekoizpen-faktoreen prezioetan eta, ondorioz, pizgarrietan eta jokabidean dute eragina. Adibidez, sozietateen mozkinen gaineko zergak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta pizgarri gutxiago izango dituzte enpresek beste kapital-ondasun batzuetan inbertitzeko.